



Tolosaldea Garatzen eta Emaus Fundazioaren programa berria

LANA ▶ Eskualdeko 8 langabetu ari dira etxetresna elektriko eta elektronikoak konpontzen

HELBURUA ▶ Zaborretara botatzen diren hainbat etxetresna berrerabiltzea du helburu ▶ 2



Tolosaldea Garatzen eta Emausen arteko programa honetako langileetako batzuk Laskorain Ikastolan dute txokoan lanean. IRATXE ETXEBESTE

TOLOSA ▶

Hegoalde esku hutsik itzuli da Kanarietatik

«Seriotasunez» aritu ziren, 2-1 galdu arren ▶ 3

VILLABONA ▶

6,6 milioi euroko udal aurrekontua onartu dute

Plan Estrategikoa izango du oinarri; %11 igo da iaiztik ▶ 4

ALTZO ▶

Ingurumena eta kirola uztartu dira asteburuan

50 lagunek hartu zuten parte igandean ibilaldian ▶ 5

IBARRA ▶

Bidaien inguruko astea ▶ 6

LEITZA ▶

Asteburu girotsu eta jendeatsurekin bukatu da XXVII. Kultur Astea

Bertsolariak, Mulambo, dantzariak, txaranga... izan dira asteburuan ▶ 7



Portugaleteko eta Leizako dantzariak plazan aritu ziren. J.ASTIBIA

GIZARTEA ▶

Hondakinak ala tresna zaharrak?

Tolosaldea Garatzen eta Emaus 8 lagun ari dira prestatzen etxetresna elektrikoak eta elektronikoak konpontzeko



Langileetako batzuk, joan den ostegunean, Laskorain ikastolan duten txokoan lanean. I. ETXEBESTE



Programaren babesleetako eta partaideetako batzuk, langileek egiten duten lanari begira. I. ETXEBESTE

EDELINA ALBINO ETA MARIA AMPARO HERNANDEZ ▶ PROGRAMAKO PARTE-HARTZAILEAK

«Modernotasunagatik gauza mordoa botatzen du zaborretara jendeak, hondatuta egon ez arren»

Ez da denbora asko igaro bertan lanean hasi zirenetik. Baina honezkeroko goitik behera maneiatzen dituzte ordenagailuen, hozkailuen, berogailuen eta beste hainbat etxetresnaren barrunbeak. Emaus Fundazioak eta Tolosaldea Garatzen-ek abian jarritako egitasmoaren harira zortzi langile ari dira etxetresna elektrikoak eta elektronikoak konpontzen. Horietako bi dira Maria Amparo Hernandez eta Edelina Albino. **Noiz hasi zineten zeregin honetan?**

Apirilaren 22an hasi ginen lanean, eta oso gustura ari gara. **Zer da, zehazki, egiten duzue-na?**

Gailuak ekartzen dituztenean probatu egiten ditugu lehen-



I. ETXEBESTE

dabizi, erabiltzeko moduan diren edo ez jakiteko. Hondatuta badaude piezakatu egiten ditugu, gai kutsagarriak bereiziz... Eta azkenik konpondu, berrerrabiltzeko izateko.

Zer nolako tresnekin jarduten zarete?

Ordenagailuak, plantxak, teledibistak, berogailuak, irriatiak... Denetik ekartzen dute hona; etxetresna elektriko eta elek-

IRATXE ETXEBESTE

Engelako armairuko azken apalean hainbat hila-betetan gordeta egon den teledibistak, memoria eskasegia duen edo zaharkitua geratu den ordenagailuak, funtzionatuko badu kolpe bat eman behar zaion irriatiak... etxean enbarazu egiten dutenean zaborretara bota, eta berriragoengatik ordezkatzeko dira. Besterik gabe. *Soberan* daudelako. Hondakinak ala tresna zaharrak dira, ordea?

Ekipo elektriko eta elektronikoetako hondakinaren karakterizazioa eta berrerrabiltzerako aukerak izenburupean, esperientzia aitzindaria jarri dute Tolosaldea Garatzenek eta Emausek abian, eta eskualdeko zortzi langabetu ari dira prestatzen etxetresna elektrikoak eta elektronikoak konpontzeko eta berrerrabiltzeko. «Prestakuntzarako eta Enplegurako Programen esparruko kontratu bidez, ezagutza teknikoak jasotzen dituzte aparatu elektrikoak eta elektronikoak konpondu eta, ondoren, bigarren eskuko artikulu gisa saldu ahal izateko, eta, modu horretan, hondakinaren berrerrabiltzea sendotzen da», dio Emauseko zuzendari Javier Pradinik.

Helburua ez da, baina, hori bakarrik. «Haratago joan, eta pertsona bakoitza aintzat hartu nahi du programak, bere berezitasunak nahiz osotasuna kontuan hartuta. Era berean, pertsonaren gaitasun pertsonalak eta profesionalak ere indartu egin nahi dira». Gainera,

PROGRAMA ▶

Prestakuntza eta enplegua uztartzen dituen esperientzia pilotua da Tolosan abian jarri dutena. Hona hemen horren inguruko xehetasun batzuk:

BABESLEAK

Udalak. Eskualdeko udaletako gizarte zerbitzuek Lanbide Tolosaldea Orientatzeko eta Lanbideratzeko Euskal Zerbitzura bideratzen dituzte.

Tolosaldea Garatzen.

Lanbide-Tolosaldea zerbitzuaren bidez, enplegua eskatzen dutenen beharrak diagnostikatzen eta hainbat jardura garatzen ditu prestakuntzari eta enpleguari begira.

Emaus. Bertako pertsonen irakasten dute programa.

Eusko Jaurilaritza. Auzolan programaren baitan dago.

Laskorain ikastola. Bere instalazioen zati bat utziz laguntzen du programan.

LANGILEAK

Giza taldeak. Gehienbat, lehen ikasketak dituzten 45 urtetik gorako emakumeak, etorkinak, lehen lanaren bila dabilten gazteak eta bazterketa soziala nozitzeko arriskua duten kolektiboak. **8 lagun.** 5 gizona eta 3 emakumezko ari dira lanean.

arduradunen hitzetan bide berririk jorratu nahi dituzte, ingurumenarekin harreman iraunkorago edo eramangarriago bat lortze aldera.

«Apirilean hasten da lanprestakuntzarako jardura, eta, gaur arte, prozesatu dira jada 538 ekipa; horietatik erdiak dira, gutxi gorabehera, Emaus taldeko enpresek eskainitako bilketa-zerbitzuetan laguntzen duten etxe partikularretan jasoak, eta %10 bat bideratu dira berrerrabiltzera». Ekintza-protokolo bati jarraiki, erregistratu egiten dituzte ekipa horiek denak, eta baita sailkatu ere. Berrerrabiltzeko modukoak ez direnei zati kutsatzaileak kendu, eta piezakatu egiten dituzte material motaren arabera —kableak, metalak, plastikoak, masa geldoak...—, gero, dagokion kudeatzaileari bidaltzeko.

Parte hartzen duten pertsonen «enplegarritasun baldintzak hobetzea» helburu duen programa abenduan hasi zen, eta irailaren 30ean bukatuko da. Handik aurrera ez du tailerrak jarraituko, baina arduradunak enpresa bat sortzeko aukera aztertzen ari dira. Horixe da langileek desio dutena, «zaila izango den arren».

troniko guztiekin egiten dugu lan.

Eta horietako gehienak hondatuta egoten al dira?

Asko eta asko ez. Modernotasuna dela, moda dela... Jendeak gauza mordoa botatzen du zaborretara, hondatuta egon ez arren. Azken batean, kontsumoaren gizarte bizi gara.

Eskolak ere izaten dituzue, ezta?

Bai, astean bi orduz aritzen gara matematikak-eta lantzen. Asteleheneetik ostiralera, 8 orduz egoten gara guztira.

Lankideen artean giro ona al duzue?

Oso ona. Asko maite dugu elkar, eta hori oso garrantzitsua da egunetik egunera elkarrekin lanean aritzeko. ◀

EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶

ARETO FUTBOLA	HITZA TXAPELKETA	Alebinak.	Infantilak.	Kadeteak.	Etorbizunekoak.
Emakumezkoen Ohorezko Maila.	Benjaminak.	Jauregi-Arrue / Ebenike-Mujika 16-03	Etxeberria-Santxo / Olaetxea-Mujika 09-18	Iturrioz / Jaunarena 18-09	Aranzabe-Orbegozo / Urmeneta-Aranalde 09-22
Teldeportivo-Hegoalde 2-1	Egiguren-Garziarena / Manterola-Garikano 16-01	Artola-Murua / Lucio-Mancisidor 11-16	Irazusta-Jauregi / Ansotegi-Zinkunegi 07-18	Idoate / Artola 18-05	Onsalo-Mujika / Elurbe-Garmendia 10-22
Nesken Kopa.	Amiano-Mujika / Oiarbide-Nabarro 16-08	Sasiain-Mancisidor / Encinas-Arandia 01-16	Josu-Daboz / Aldasoro-Insausti 18-12	Santesteban / Ibarguren 18-12	Renobales-Larrazabal / Armentariz-Astiz 22-09
Altzakoa-Tinta Billabona 7-4	Ubarretxena-Noble / Larrea-Rezola 16-01	Etxeberria-Murgiondo / Mabinea-Arratibel 04-16	Altuna-Galarra / Oiarbide-Garmendia 01-18	Narbarte / Agirrezabala 18-06	Betia-Urriarte / Urmeneta-Aranalde 22-18
Idiazabal-Laskorain 1-4				Madariaga / Yeregi 03-18	
PILOTA	Ibarzabal-Tolosa / Arandia-Zabala 16-04			Loiarte / Ropon 03-18	
				Mitelena / Sarasola 03-18	

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

Esku hutsik etxera, gutxigatik

Galdu arren, ordezkariak ez dira triste, «taldea seriotasunez aritu zelako»

LEIRE MONTES

Zortea ez zuen lagun izan Hegoaldeko Ligako azkenaurreko jardunaldian. Gutxigatik, baina esku hutsik itzuli behar izan zuen etxera Kanariar Uhartetatik: 2-1 galdu zuen Teldeportivoaren aurka.

Sailkapeneko goiko postuetan da Teldeportivo, eta denboraldi honetan puntu gutxi galdutu bere kantuan. Hegoalde, gainera, baja dezente zituen partida honetarako: Nerea Arana, Nerea Salazar, Itziar Aldezabal, Miriam Arana eta Edurne Agirretxe, hain zuzen ere. «Norgehiagoka ez zela erraza izango» bazekiten, baina ez ziren kokildu.

Presio handia eginez ekin zioten partidari kanariarrek. Baina Tolosakoek, beste behin, talde lan eta bere buruarenganako konfiantzan oinarritu zuten beren jokoa. Atzean primeran eutsi zieten erasoei, eta arriskua sortzen ere asmatu zuten. Hala ere, Teldeportivok lortu zuen markagailuan aurreratzea, eta Hegoaldeko gol bat sartu zuen arren, 2-1eko emaitzarekin amaitu zen lehen zatia.

Bigarrenak tankera beretsua izan zuen. Dena den, Hegoaldeko kanariarrei ondo eutsi zien arren, tolosarrek ez zuten asmatu baloia sarera bidaltzen, eta atsedendiko emaitzarekin amaitu zen lehia.

Esku hutsik itzuli arren, Hegoaldekoek ez ziren triste. Maite Argote taldeko entrenatzailearen esanetan, «ez da hain emaitza txarra guretzat. Aurrean aurkari gogorra izango genuela bagenekien. Eta, gainera, jokalaria garrantzitsus askok

TELDEPORTIVO ▶ 2
HEGOALDE ▶ 1

Teldeportivo. Sara Alvarez, Laura Quintana, Maria Gonzalez, Carmen Morales, Marga Enriquez —hasierako bostekoa—, Carmen Noet, Pino Ortega, Isabel Verdu, Monica Marin eta Sofia Viera. Entrenatzailea: Agustin Garrido.

Hegoalde. Amaia Azpillikueta, Lourdes Zuriarrain, Maider Lopez, Isa Barrio, Naiara Mayo —hasierako bostekoa—, Sonia Tome, Esther Videra, Gema Zelaia eta Arrate Martinez. Entrenatzailea: Maite Argote.

Golak. 1-0: Carmen Noetek (04m.); 2-0: Carmen Noetek (15m.); 2-1: Gema Zelaiak (18m.).

Epaileak. Manuel Agirrelana, Juan Ramos eta Gervasio Garcia.

ezin zuten jokatu Kanarietan. Jokalariak zoriondu behar ditugu, seriotasunez aritu eta dena eman zutelako».

Azken partida, etxean

Etxean esango dio agur Hegoaldeko, datorren asteburuan, Emakumezkoen Ohorezko Mailako 2004-2005 Ligari. Beraz, bin jokatuko du, zaleen aurrean, 19:00etatik aurrera.

Hasiera batean, partida erraza dirudi larunbatekoa, hurrengo denboraldian mailaz jaitsiko den taldea izango baitute aurkari tolosarrek: Cabanyal Valencia azken sailkatua.

TOLOSA ▶

Kutxa Xake Txapelketatik kanpo dira eskualdekoak

Partida Azkarreko Txapelketa antolatutako larunbatean Tolosako Elkarteak



lazio txapelketa. o. e.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko Kutxa Xake Txapelketako finalak jokatu ziren igandean. Aurreko astean, finalerako txartela «meritu osoz» lortu zuten. O. Alonsok, J. eta A. Rodriguezek, E. Varelak, eta I. eta U. Aseginolazak osatutako alebiren taldeak, baina, ezin izan zuten bere multzoko bosgarren postutik pasatu, Tolosako Xake Elkartekoek azaldu dutenez. Infantiletan, J. Mendiaren taldea ere multzoko laugarren postuan sailkatu zen. Hala, «lan handia egin arren», guztiak geratu dira Gipuzkoako finaletik kanpo.

Bestalde, datorren larunbatean, hilaren 11, Tolosako Xake Txapelketa jokatu da Tolosako Xake Elkartean egoitza berrian (Berdura plaza, 2). Partida azkarreko txapelketa izango da, eta 16:00etan hasiko da. «Parte hartu nahi duenak larunbatean bertan hasiera ordua baino zertxobait lehenago elkartearen agertu besterik ez du», azaldu dute.

TOLOSA ▶



Tolargi, Espainiako Txapelketara

L. Montes ▶ Tolargi areto futbol taldeak Iparraldeko guneko Espainiako Txapelketa irabazi du asteburuan, jubenil mailan. Duela 15 egun Euskadiko Txapelketa irabazi zuen, Idiazabalen, Labastida taldearen kontra: 4-0 galtzen joan arren, partidari buelta eman eta 5-6 irabazi zuten Tolosakoek. Orain, Zaragozan (Espainia), Salou F.S. Kataluniako txapeliduna izan zuen aurkari, eta 10-6 menderatu zuten. Lagun koadrila honek liluraturik utzi du jendea, bere joko bikainagatik. Hilaren 16tik 18ra, Espainiako Txapelketa absolutua irabazteko gogor borrokatuko dira gazteak. Irudian, ezker-eskuin, goiko lerroan: Asier Agirrezabala, Iñigo Belloso, Sergio Sorrosal, Eric Aguilar, Ion Artola eta Julen Mendizabal; makurturik: Iñaki Barriola, Imanol Landa, Joseba Illumbe eta Mikel Lizarza. HITZA

TOLOSA ▶



Euskal Herrikoa, Laskoraintzat

L. Montes ▶ Gasteizen jokatu zen, joan den astean, Eskola Kiroleko Euskadiko Txapelketa. Gipuzkoakoa irabazi ondoren, bertan izan ziren Laskoraingo zenbait ikasle: areto futboleko infantil neskek, mahaiko teniseko infantil mutilak, eta atletismoko kirolariak. Pozik itzuli ziren herrira, Nafarroako, Arabako eta Bizkaiko taldeekin jokatu ondoren infantil mailako Euskadiko txapelidun suertatu baitziren. Bestalde, kadete neskek eta alebin mutilek osatutako areto futbol taldeak, txirridularitzako alebin mutilek eta herri kiroleko infantilek Gipuzkoako txapelketa irabazi dute. HITZA

VILLABONA ▶ UDAL AURREKONTUA

«Plan Estrategikoa oinarri» duen udal aurrekontua

Udalak 6,67 milioi euroko aurrekontua onartu du, iaz baino %11 handiagoa; hirigintzak eramango du kopuru nagusia

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak aurtengo aurrekontua onartu du, 6.672.031,27 eurokoa, iaz baino %11 handiagoa. «Udalaren Plan Estrategikoa oinarri duen aurrekontua», Udaletik azaldu dutenez. «Lehenengo urtean hasi ginen ildo beretik jarraituz, lau urterako jorratu genuen plan estrategikoa horren bidetik prestatu ditugu 2005 urterako aurrekontuak». «Gastu korrontearen murrizketa edota kontrol hobe baten bila, eta hiritarrentzat zerbitzu hobe baten bila prestatuak izan dira», azaldu dute. Helburua «inbertsio ahalik eta hoberenak egitea



Gurea antzokian egin ohi dira kulturaren arloko ekitaldi ugari. i.e.

da, Udala mailegu handiegiz utzi gabe».

Hirigintzak eramango du kopuru nagusia, aurrekoan

baino %300 gehiago. Izartu plana eta Mintzolako lehen faseak kokatu ditu hor Udalak. Beste atal nagusi bat zerbi-

AURREKONTUA ▶

Gaia	euroak
Hirigintza	1.218.013,89
Zerbitzuak	1.146.107,35
Gizarte zerbitzuak	668.273,88
Euskara eta Hezkuntza	735.070,00
Kultura	781.303,54
Udaltzaingoa	312.378,70
Kirolak	169.477,06
Ingurumena	92.148,20

tzuena da, aurreko urtekoaren antzeko kopura izango du. Bertan sartzen dira urak, zaborrak, herri garbiketak...

Bestalde, Euskara eta Hezkuntzaren arloari dagokionez, %10 igo da aurrekontua. Berrietasuna laizkoarekin alderatuz, haurreskola berriarentzako zehaztutako kopurua da. Herriko bi kultur etxeetako lanek —Amasako aurki inauguratuko da— kulturako aurrekontua ere %10a igotzea ekarriko dute.

Banketxeetan 886.000 euro inguruko mailegu bat eskatuko da. Bestalde, Udalak nabarmendu du Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean emango dituzten 1.026.000 euroko diru laguntzak.

AIZTONDO ▶

Ipuin kontalariak Alkizan eta Adunan

Ipuin kontalariak izango dira Alkizan eta Adunan. Idoia Barandiaranek egingo du Alkizako saioa, herriko liburutegian, 18:00etan, ostegun honetan. Maite Franko izango da Adunan, ostiralean, herriko liburutegian, 18:00etan.

ANOETA ▶

Pentsiodunak eta jubilatuentzako bazkaria

Urtero bezala, Udalak herriko jubilatu eta pentsiodun guztiei eskainiko die bazkari bat Bentaldeako bodegoian ekainaren 24an, 13:30ean (ostirala, San Juan Eguna). Bertara gonbidatuta daude baldintza hauek betetzen dituztenak: Anoetan erroldaturik egotea; jubilatu edo pentsionista izatea; 60 urtetik gorakoa izatea (hauek barne). Udaletik azaltzen dutenez, ezkonkideak joan daitezke ere eta aurretik aipatu baldintzak ez bete arren, lehen joaten zen norbait alargun gelditu bada eskaera onartuko zaio ere. Izen ematea udaletxean, 09:00etatik 13:00etara. Azken eguna, hilaren 17a.

ANOETA ▶

983 da festa alternatiboen zenbaki saritua

Herri borondatearen aldeko festen batzordeak zozketa bat burutu zuen jaien baitan eta zenbaki saritua 983 da. Beraren jabeak Itzuli tabernara joan behar du saria jasotzera. Bestalde, batzordeak bihar egingo den bilerara deitu du, festen balorazioa egiteko. Udaletxean izango da, 19:00etan.

VILLABONA ▶

Flemingeko ikasleen antzerkia

Dr. Fleming ikastetxeko Guraso Elkarteak antolatuta, Haur Hezkuntzako 1. eta 2. mailako haurrek urtean zehar prestatutako antzerki obra eskainiko dute bihar 18.00etan Gurea zineman.

ALKIZA ▶ HEZKUNTZA

Aiztondoko I. Kirol Topaketa egin dute

Erredakzioa ▶ Pasatu den larunbatean ospatu zuten Aiztondoko I. Kirol Topaketa. Ikasurtean zehar Aduna, Larraul eta Alkizako haurrek Kirola Ezagutzuz izeneko ihardueran parte hartu dute. Kurtsoa bukatu baino lehen elkartu dira Alkizan ikasitako kirolak haien guraso eta hurbildu zirenen aurrean erakusteko. Hurrengo ikasturtearen bukaeran Adunako gurasoak hartuko dute lekukoa. HITZA



iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88



Andoain. 3 logelako etxebizitza berritzeko. Igogailua. Kokapen onekoa. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Asteasu. Txalet eraiki berria. Ezin hobea. Lurra, garajea eta trastelekua. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ibarra. Etxebizitza altu polita. Egongela-jangela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. 3 logelarako aukera. Garajea. Igogailua. Etxesagasti. 943 696 856.
Irura. Etxebizitza erdi-berri polita. 3 logela eta 2 bainugela. Ezin hobea.

Garajea eta trastelekua. 49.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.
Irura. Lursaila ibixurarekin duen borda. Atsedenerako ezin hobea Etxesagasti. 943 696 856.
Tolosa. Terraza zabaldua duen logela bateko etxebizitza polita. 31.900.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.
Zizurkil. 95m²-ko etxebizitza ederra. 3 logela. Kanpoaldera. Balkoiak. Egoera onean. Etxesagasti. 943 696 856.
Villabona. 72 m². Egongela,

sukaldea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti. 943 696 856.
Villabona. 3 logelako etxebizitza polita guztiz eraberritua. Kanpoaldera. Trastelekua. Garajea. Etxesagasti. 943 696 856.
Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarkako etbeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. Ixaron zerranda dugu.

ALTZO ▶ GIZARTEA



Berto magia saio eroa Elordin

N. Lataburu ▶ Galtzaundi Euskara Taldeak bertso magia ikuskizun umoretsua antolatu zuen larunbat gauean Altzoko Elordi elkarte- an. Alain Urrutiak eta Jon Martinek burutu zuten emanaldia, erruz beteriko elkarte- an. Bertaratu- en esanetan, «gau atsegina igaro genuen beraiekin eta barre algarak eragin zituzten». HITZA

AMEZKETA ▶ HEZKUNTZA



Ikasturte amaierako jaialdia

N. Lataburu ▶ Antzezpen lanekin esan nahi izan diote agur 2004/05 ikasturteari Amezketa-ko Zumadi eskolako ikasleek. Horre- la, 3. eta 6. maila bitartekoek hainbat antzezlan taularatu zituzten psikomotritate gelan, guraso eta lagunen aurrean. Argaz- kian, bertsoekin eginiko Altzoko erraldoiari buruzko antzerkia. N. L.

IKAZTEGIETA ▶

Begiristain, sagardo txapelketan hirugarren

N. LATABURU

Larunbatean Donostiako Euskal Gastronomia Kofra- diako egoitzan egin zen Aldundiaren sagardo lehiaketa- ren IV. edizioa. Ikaztegieta- ko Begiristain sagardotegiak hirugarren postua lortu du, Astigarrako Gurutzeta eta Usurbilgo Urdairaren atze- tik.

Iñaki Begiristainek Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburu Lopez de Samanie- go, Nekazaritza diputatu Lopez de Gereñu eta Gastron- miako kofradiako lehenda- kari Mokoroaren eskutik jaso zuen saria. Guztira Gipuzkoako 28 sagardogilek hartu zuten parte lehiaketan.

ALTZO ▶ GIZARTEA

Ingurumena eta kirola uztartuz lortutakoak

50 lagunek hartu zuten parte 'Kirola kalera ateratzeko egunaren' harira herenegun antolaturiko natur ibilaldian

NOELIA LATABURU

Herenegun Altzoko festa giroan murgildu zen *Kirola kalera ateratzeko egunean*. Nazio Batuen Erakundeak izendatutako ekimena aitzaki, natur ibilaldia antolatu zuen Altzoko Udalak, Santillazpi guraso elkartearekin eta Elordi kultur eta kirol elkartearekin batera. «Kirolaren alderdi osasuntsua nabarmendu nahi izan genuen eta ingu-
rumenarekin uztartu genuen natur ibilaldian», adierazi dute udal ordezkariak.

Jende andanak hartu zuen parte ekimenean. Herriko plazan bildu ziren 10:00etan 50 pertsona inguru, heldu nahiz gaztetxo, natur ibilalditxoari ekiteko asmoz. Antolatzaileen arabera, «giro paregabea izan genuen eta dena espero baino hobe atera zen». Ordubetean «adin guztientzat» egokitutako

ibilbidea burutu zuten, bidean hainbat «sorpresa» ere izan zituztelarik. Eguraldia lagun, ingurumenarekin hartu- emana «zuzena» ere izan zuten. Gidari laguntzaileak bidean zehar topatzen zituzten animalien berri ematen zien ibiltariei. Amaieran bi hegazti ere askatu zituzten. 11:00etan herriko pilotalekura iritsi ziren, non Aldundiak eskaintako sari bana banatu zitzaizen ekitaldiko partaide guztiei, euritarako motxilak, hain zuten. Egun atsegina iga-
rotzeaz gain, «ingurumena eta kirola uztartzea» izan zuten helburu herenegun Altzon.



Herenegun altzotarak eginiko natur ibilaldiaren une bat. HITZA

Bestalde, ibilaldiaren bukaeran Tolosaldeko II. Topaketen kadeteen finalurrekoak jokatu zituzten, emaitza hauekin: Garmendia-Artola (Zazpi iturri) 22, Pinar-Arretxe (Behar-

Zana) 15; eta Iburguren-Artola (Elordi Herrigintza) 22, Ormaetxea-Urruzola (Erniope) 9.

Bezperan Ikaztegieta-ko Udaberria Sariako finala jokatu zen, infantil maila, eta Elordi elkarte-ko Eneko Goitiak eta Aitzol Galarragak 18-15 irabazi zieten Zumaia-ko pilotariei.

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Apartamentua. Alcosseberren (Castello) apartamentua alokatzen da 2-4 pertsonentzat terraza, pizkina, hondartza, aire egokitua eta garajearekin. Deitu 943 65 00 19.

LANA

Etxeko lanak. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Orduetgia: astelehene- tik ostiralera 16:00etatik 20:00etara. 600 euro eta gizarte segurantzaz. Erreferentziak guztiz beharrezkoak dira. Bidali 240 posta

kutxara. 20.400 Tolosa.

Sukaldaria. Astebukaeratarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

Emakumea. Pertsona helduak zaintzeko emakumea eskaintzen da edo etxeko lanak egiteko. Informea- k. Interesatuak deitu 635 74 58 58 zenbakira.

Tabernaria. Tolosaldeko neska bat udan tabernan egiteko prest dago. Esperientziaduna. Deitu 650 66 20 35 zenbakira.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

IBARRA ▶ GIZARTEA

‘Munduan zehar...’ bidaien inguruko astea hasiko da gaur

Aitor Arozenaren bizkleta abenturarekin hasiko da; emanaldi guztiak 20:00etan Kultur Etxean izango dira



Munduan zehar bidaiatzeko aukera izango da egunotan Ibarra. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur hasi eta ostirala bitarte, Kultura eta Gazteria Sailak antolatuta, Kutxaren laguntzaz, Munduan Zehar... bidaien inguruko astea izango da. Ikus-entzunezkoen bidez munduan zehar bidai interesgarriak egiteko aukera izango da, beraz.

Gaur, Pirinioak eta Alpeak bizkiletaz abentura moduan diapositiba emanaldia ikusteko aukera izango Aitor Arozenaren eskutik. «Europako errepede galduta eta altuenetik eginitako bidaiak da, Irundik atera eta Pirinioak eta Alpeak zeharkatuz Austriaraino iritsi bitarte (Irún-Innsbruck-Geneva); ba-

soan, edozein erreka bazterretan edota kanpin merkeenetan egiten nuen lo», azaldu du Arozenak eginiko bidaiaren inguruan.

Bihar, berriz, Peru, eguzkiaren atarira bidaiak izango da ikusgai Mila Gallastegi eta Asier Aranzabalen eskutik. «Argazki-bilduma oso zaindua eta txukuna da Andeetako quena eta zanpoña tresnen doinu leunek girotua», azaltzen dute egileek, «Urabamba-Vilcanota inken ibai sakratuaren ibilgutan barrena Peruko geografía-eremu oparoak kanoaz, oinez, kamioiz eta trenez zeharkatuz hango paisaiei, jendeari eta historiari buruz ikusi,

EGITARAUA ▶

Emanaldi guztiak Ibarra Kultur Etxean izango dira 20:00etan.

Gaur. Pirinioa eta Alpeak bizkiletaz abentura moduan Aitor Arozenaren eskutik.

Bihar. Peru, eguzkiaren atarira bidaiak Mila Gallastegi eta Asier Aranzabalen eskutik.

Etzi. Patagonia Jose Ramon Agirre Marron-en eskutik.

Ostirala. Trainerua Irlandan. Albaola taldearen eskutik.

sentitu eta ikasi genuena erakusten du ikus-entzunezkoak».

Etzi, Patagonia izango da Jose Ramon Agirre Marron-en eskutik. «Ikus-entzunezko honetan, aurrez aurre jarrita aurkezten ditut paisaiaren edertasuna eta Tierra del Fuego lurretan bizi ziren Onas eta Selknam familien ondorengoen bizimodua», dio abenturazaleak.

Eta ostiralean, Trainerua Irlandan proiektzioa ikusi ahalgo da. 2003ko udan, Albaola elkarteak XIX. Mendeko traineru batetan Irlandako uharteari bira ematean bizitako kontakutako da.

GAZTELU ▶ KIROLA



1.10:28 segundoko marka ezarri du Patxi Mujikak

I.Terradillos ▶ 40 minutu eta 55 segundotan heldu zen Patxi Mujika, 60 urteko gazteluarra, Tolosatik Gaztelura igandean, eta bertan kanako egurra moztu zuen ondoren. Denera ordubete 10 minutu eta 28 segundo behar izan zituen. Jende ugari bildu zen proba ikusi eta gazteluarra animatzera. Amaitzean bazkarian bildu ziren Kontzejuan, buruturikoa ospatzeko. I.TERRADILLOS

IBARRA ▶ KULTURA



Alurr dantza eskolako mutilen taldearen lehen emanaldia

I.Terradillos ▶ Larunbatean Uzturperen ikastolaren eguneko ekitaldien barnean estrainekoz aurten taldea eratu denetik dantza saioa eskaini zuten Alurr dantza eskolako mutilek. HITZA

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheha
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-mail: ennio@innoennio.com
www.innoennio.com

Altzo. Etxe bifamiliar ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak.
Ataun. San Martin. 2 logela. Berritzeko. 75.125 euro!

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Ikaztegieta. 6 etxe abxikien eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Ikaztegieta. Etxe abxikia salgai. Lorategi eguzkitsuarekin.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela. Trasteleku eta garajearekin. Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai.

Ikusgarria!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik.

Tolosa. Korreo. 2 logela, egongela,

sukaldea, bainugela. Berokuntza. Sartzeko moduan. 168.285 euro.

Tolosa. Nagusia. Pisu polita. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Berokuntzarekin. Egoera oso onean. Gazteentzat egokia!

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Amaroz auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²-ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatze, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

Behean: garajea, komuna eta bokoa.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai.

Egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. Iurre. 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Egoera bikainean.

Tolosa. Ibai aldera eta hegoaldera. 4 logela, bi bainugela. Trasteleku eta garajea. Aukera paregabea!

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101 m²-ko eta 109 m²-ko bi etxebizitza bikain salgai.

Estreinatze, erabat berritua izan ondoren. Kalitate oso onak. Igogailua eta berokuntzarekin!

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean

124m²-ko etxebizitza garajearekin salgai.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Txarama inguruan. 100 m²-ko etxebizitza terrazarekin salgai.

Egongela su bajuarekin. Lur saila eta garajearekin. Oso egoera onean.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Villabona. Etxeondoren etxebizitza garajearekin salgai. Etxebizitza, 3 logela eta 2 bainugelarekin. Garajea 50 m²-koa, karabanentzat egokia.

Villabona. Kale Berrian 34 m²-ko garaje ibxia salmantan.

LEITZA ▶ XXVII. KULTUR ASTEA

Bukatu da, bukatu da...

Ekitaldi desberdinez betetako asteburu girotsu eta jendetsuarekin eman diote bukaera, lehengo ostiralean hasi eta herenegun, igandea arte, hamar egun bete-bete egin dituen XXVII. Kultur Asteari



Hiru bertsolariak elkarrekin ez ezik, entzuleekin ere aritu ziren umorez. JAIONE ASTIBIA



Mulambokoen erritmoak girotu zuen afalondoa Karrapean. Ondoren kontzertuak. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Igandean eman zioten bukaera XXVII. Kultur Asteari, aurten-goz: hilaren 27an hasita, hamar egun jarraietan, zer ikusi eta zertan ibilia izan dute leitzarrek ez ezik, bisitan etorri direnek ere. Bukaera, lagunarteko giro ederrean eman diote.

Izan ere, festa giroa nabarmendu izan da azken egunetan, edo *gazte giroa*, akaso, hala izan edota sentitzen direnzentzat ere: larunbatean Kultur Taldea eta Gazte Asanblada aritu ziren elkarlanean eta, arratsaldeari *Ke takoiak* antzezlanarekin ekin zioten, ikuskizunetatik margoketara igaroz ondoren. Iluntze aldera, berriz, bertso-triki poteoan jende mordoska ibili zen batetik bestera: ekitaldi berria eta berezia izaki, jendea gustura egon zen.

Baita bertsolariak berak ere: Diego Riaño, Iñigo Ibarra eta Julio Sotok, berriz ere, hemen bertan elkarrekin kantatzeko hitzordua ere egintzea utzi zuten, hirurak ere Leitzarekin lotura zuzenekoa —Diego bertakoa da jakina— edo zeharkakoa —Iñigoren guraso bat hemengoa da eta Julioeren osaba bat bertan bizi dena— dutelako. Saio berezia, bertso polita eta umoretsuak ere bai.

Bertsotan kalejiran ibilita, 160 lagun elkartu ziren Karrapean afaltzera. Gazte jendea batez ere. Handik aurrera festa giroa nagusitu zen: Mulambo perkusio taldeak erritmo bizia ezarri zuen han bertan, nahiz kaleetan ere; eta ondoren, kontzertua. Jende multzo dezentea inguratu zen plaza aldera, eta giro bikaina izan zuten.

Eta bezperako makina bat

oraindik hor zehar zebilela, Portugaleteko dantzarien bisita izan zuten igande eguerdian, herriko plazan. Tikiak izanik ere, saio polita egin zutuzten, batez ere jostatzeko dantzak eskainiz. Eta etxekoak, zer esanik ez: anfritioi lanak eginez, oso dotore aritu ziren, *San Migel*, *Saski-dantza*, *Ezpatadantza*-ko zenbait atal... eginez, gonbidatuekin txandakatu. Txalo zaparrada ederrak jaso zituzten. Bazkalondoa, *Ingurutxoa* dantzatu zuten elkarrekin.

Dantza gehiago nahi zuenak, Jarauta 69 txarangarekin izan zuten egiteko aukera. Kalez kale bueltatxoak eginez, kontzertu polita eskaini zuten hauek ere. Eta egunari ez ezik, aurten Kultur Asteari ere, ohi dutenez, *Bukatu da, bukatu da* doinuarekin eman zioten.



Gazteak ez ezik tikiak ere aritu ziren marrazketa lanetan. J. ASTIBIA

hitza

txokoa^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaia k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin

kanikak
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Proiekzioa: *Pirinioak eta Alpeak bizikletaz abentura moduan*. Kultur Etxean 20:00etan.
Tolosa. Zinema programazioa hobetzeko asmoz sortu den taldeak bigarren bilera izango du 20:00etan Kultur Etxean. Deialdi berezia egiten zaei emakumeei eta gazteei.
Tolosa. Sanjoanetako Koadrilaren Eguneko bazkarirako bartelak ostiraletan 19:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 11:30etik 13:30era egongo dira salgai Orbela tabernan.
Tolosa. XVII. San Joan Areto Futbol Txapelketa antolatatu du Arsenal kirol elkarteak ekainaren 17tik 26ra 1995-96 eta 1993-94 urteetan jaiotako neska-mutilentzat. Izen-ematea: Shanti Kirolak (943 65 34 24).

ERAKUSKETAK

Alegia. Tailerretako ikasleen lanak. Kultur Etxea.
Tolosa. Josu Gonzalez Arsuaga. Sanjoanei buruzko argazkiak. Saikin taberna.
Tolosa. Dick Recalde. Pintura. Aranburu Jauregia.
Tolosa. Alejandro Gonzalez Goenaga. Pintura. Lanbroa.
Tolosa. Manuel Arretxe. Akuarelak. Sorron denda.
Tolosa. Aitor Ventureira. Euskal inauteriei buruzko argazkiak. Ganbara arropa denda (Gudari 16).
Tolosa. Calcutako bizimoduaz argazkiak. Aranburu Jauregia.

ZINEMA

Tolosa. *Las tortugas tambien vuelan*. Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre (FM 107)
11:00-14:00. Ibarrako bidai astea, Gipuzkoako Aizkolari Txapelketa Ibarren, herri kirolak, azoka, agenda, lehiaketa... 19:00. Errepikapena.
▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Udal Txistulari Banda eta abeslariak Izaskunen. J.SAIZAR



Haurrak eta gazteok pottokekin jolasten Izaskunen. J.SAIZAR

Uzturrek badu bere doinua

TOLOSA ▶ Udal Txistulari Bandak, Gure Txokoa abesbatzak eta tronpetajoleek estreinatu zuten igandean Uzturren; haurrek bere festa izan zuten Izaskunen



Gure Txokoa abesbatza, Udal Txistulari Banda eta tronpetak Uzturre obraren estreinaldian. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Uzturre, Tolosaldeko erreferentzia den mendia, haur, gazte eta helduen topagunea izan zen igandean, eguraldia lagun. Urteroko festa izan zen berrikuntza batzuekin. Ohiko jan-edariekin batera, musika pieza baten estreinaldia izan zen: Inaki Letamendiak konposatutako *Uzturre*, Paco Gereñuren hitzekin. Horretarako, letamendiak berak zuzentzen duen Udal Txistulari Bandaz gain, Gure Txokoa elkarteak abesbatza eta tronpetajoleak joan ziren. «Tolosa-rrak babesten beti zintzo» dagoen «gaztelu zaintzalea» urtean behin gutxienez agurtzera animatzen du abestiak. Hamaiketako eta opariak banatu zituzten ondoren.

Festak Izaskunen izan zuen jarraipena. Berrito interpretatu zituzten estreinaldia eta beste pieza batzuk eta haurrek jolasteako pottokak, txerriak eta beste abereak askatu zituzten ondoko zelaian. Giro ederra ta eguraldi paregabea izan zen.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Aitor Gogortza Goikoetxea (Usabal).
Herenegun 9 urte.
Zorionak eta muku handi bat familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Odei (Tolosa). Gaur 4 urte.
Zorionak maite zaituztegun guztien partetik.



URTE ASKOAN
Aitor Gurrutxaga (Tolosa).
Gaur 6 urte. Zorionak familia guztia partetik.



AGURRA
Arnaitz: 8 urte zu gabe,
baina gure oroitzapen goxetari zaude erabat. Leitzako familia.

HITZA,
zorian agurren tarfea
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udalteko bulegoa
LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!